



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko martxoaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko martxoaren lehenean, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, HEGUY Antton
Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko otsailaren 25a
Afitxatze eguna : 2022ko otsailaren 25a

12. ERABAKIA: BASERRIALDEKO ELEKTRIKATZEA – “AB aldea (lurpeko hedatzea)” programa Herriko partea diruztatzeko proiektua onartzea 22EX011 zk. dosierra Nomenklatura: 9,1

Jaun auzapezak herriko kontseiluari jakinarazten dio Pirinio Atlantikoetako ENERGIA SINDIKATUari ondoko obrak aztertzea eskatu diola: **BT hedatzea, Sylvain TROUNDAY etxearen hornitzea**

Energia Sindikatuaren lehendakariak herriari jakinarazi dizkio egin beharreko eta Groupement SPIE / REY BETBEDER esku utzitako obren gastuak.

Jaun auzapezak zehazten du obrak horiek Baserrialdeko Elektrikatzea - “2022ko AB aldea (lurpeko hedatzea)” programan sartuak izanen direla; herriko kontseiluari gastuen zenbatekoa onartzea eta obrak diruztatzea proposatzen dio.

Jaun auzapezaren azalpenak entzun ondotik, eta eztabaidatu ondotik, herriko kontseiluak:

- **ERABAKITZEN DU** gorago aipatutako obrak eginaraztea eta ENERGIA SINDIKATUaren esku uztea.

- **ONARTZEN DU** egin beharreko obren eta gastuen zenbatekoa, horrela osatuak:
 - Obren zenbatekoa BEZa barne
21 886.51 €
 - Obralaritza laguntza, obralaritza eta ustekabekoak
2.188.66 €
 - Notario-aktak
345.00 €
 - SDEPA kudeaketa gastuak
911,94 €

OROTARA 25 332.11 €
- **ONARTZEN DU** eragiketaren aitzinikusitako finantzabidea, horrela osatua:
 - FACEn parte hartzea
13 600.00 €
 - SDEPAk diruztatutako BEZa
4 012.52 €
 - Herriak funts libreen gainean finantzatu beharreko obretan parte hartzea
6 807.65 €
 - Herriak kudeaketa gastuetan parte hartzea (funts libreen gainean finantzatu beharrekoak) 911,94 €

OROTARA 25 332.11 €

Herriaren parte hartze finkoa finkatua izanen da obren behin betiko zenbatekoa finkatu ondotik.

Gainera, Herriak obretan parte hartzea "Funts libreen gainean" diruztatzen baldin badu, SDEPAk aurrerakin bat edo batzuk eskatzen ahalko dizkio, egindako obren arabera.

- **ONARTZEN DU** herrilurretako jabari pribatuaren gaineko urrikako zortasuna.
- **HELARAZTEN DIO** erabaki hori legezkotasun kontrolari.

Kide kopurua : 15
 Hor zirenen kopurua : 13
 Balizko boz kopurua : 13
 ALDE : 13
 KONTRA : 0
 ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko martxoaren 1ean
 Auzapeza,
 Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
 2022/03/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
 Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/03/14an.

